



Ekintza honen helburua: Kontsumo iraunkorraren inguruan hausnarketa bat egitea da. Bereziki 8 urtetik 16 urte bitarteko ikasleei eskaintzen da.

EKINTZA HAU EROSKETA BATEN SIMULAZIOA DA.

Bertan lantzen diren gaiak hauek dira:

Fruta eta barazkiak / Brikolajea eta eraikuntza / Eguneroko erosketak / Loreak eta lorategia / Bidezko merkataritza / Elektrogailuak / Garbiketa produktuak / Paper-gauzak eta bertan lantzen ditugu (hondakinak, energia, kutsadura, uraren kontsumoa eta garraioa).

Talidetan banaturik talde guztientzat berdinak izango diren egoera batzuk banatzen zaizkie.

Egoera hauetan oinarrituta erosketak zerrenda bat egiten dute.

Erosketa espontanea izan behar du.

Erosketa egiteko sarreran otarratxo batzuk dituzte eta txartelen bidez erosketak egiten dute.

Erosketa amaitu ondoren talde bakoitzak kalkulatu behar du egin duten erosketek dagokion puntuazioa (produktu bakoitzak 0-1-2-3 puntu eduki ditzake)

0- egokiena

3- desegokiena

Puntu gutxien lortu duen taldeak egin du erosketarik egokiena eta arrazoiak aztertzen ditugu ekintza bukatzeko.

EGOERAK

1 Gosaria! Familia ordu erdi barru azalduko da eta despentsan ez daukagu ezer. Mikelek esnea kakaoarekin hartzen du, eta Leirek kafesnea. Azukrerik ez daukagu. Falta diren gauzak erosi beharko ditugu.

2 Bazkaltzeko... badirudi eguraldia freskatu egingo dela. Zopa bero bat ongi sartuko zaigu, eta postrerako labean erretako sagarrak. Baina etxean ez daukagu ezer...

3 Gaur arratsaldean zure lagunak etxera etorriko dira. Laranja zukua prestatu behar dugu, baina zukugailurik ez daukagu. Gehien gustatzen zaizkigun goxokiak bukatu dira. Erosketak egin beharko ditugu.

4 Balkoira irten garenean lorak oso ahul ikusi ditugu. Ongarri pixka bat behar dute. Zerbait erosiko dugu.

5 Harat!, gauza gehiegi dira gogoratzeko. Paper bila joan gara, baina ez dago paperik.



EGOERAK

1 Txokolatea prestatu behar dugu, baina etxean ez daukagu ezer, ez esnerik, ez kakaonik, ezta azukrerik ere. Bazkaltzeko, babarrunak tomatearekin prestatuko ditugu.

2 Zure kalkulagailua ez dabil, pilak gastatu zaizkio. Berriak erosi beharko ditugu!

3 Hara! Ez daukagu komuneko paperik. Komuneko zisterna hondatu egin da, aldatu beharko dugu.

4 Malenen urtebetetzea da Opari ezin hobia izango litzateke irratia, erostera joan beharko dugu.

5 Gaur platerak garbitzea egokitu zaigu, eta ontzi-garbigarririk ez da geratzen. Erosi beharreko gauza guztien zerrenda egitea pentsatu dugu. Paper eta arkatz bila joan gara, baina ez dago paperik, eta ezta arkatzik ere.



EGOERAK

- 1 Eskolara joan behar dugu eta gure liburu-zorroak hutsik daude. Betetzen hasi beharko dugu. Arkatza, papera eta boligrafoa behar ditugu.

- 2 Balkoira irten garenean loreak oso ahul ikusi ditugu Ongarri pixka bat behar dute. Zerbait erosiko dugu.

- 3 Arratsalderako txokolatea prestatu nahi dugu, baina etxean ez daukagu ezer, ez esnerik, ez kakaorik, ezta azukrerik ere.

- 4 Sukaldeko argia hondatu egin da, bonbilla berriak erosi beharko ditugu.

- 5 Gaur gauean lagunak etxera etorriko dira eta afaltzeko zopa bero bat eta bakailaoa tomatearekin prestatuko ditugu.
Hara! sukaldeko zapiak ere falta zaizkigu. Erosketak egitera joan beharko dugu.



KONTSUMO IRAUNKORAREN GELA



Eskolako Agenda 21

DBH 2. zikloa



INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y
ORGANIZACIÓN DEL TERRITORIO

EGOERAK

- 1 Saioaren urtebetetzea da. Opari ezin hobeak izango lirateke irratia eta landare eder bat.

- 2 Zure galdara ez dabil, ezin da konpondu. Berria erosi beharko duzu. Uf! Lurra garbitzea egokitu zaigu eta garbigarririk ez da geratzen.

- 3 Zure sukaldeak berritze beharra du: leiho berriak, pintura pixka bat... Hara! Zenbat gauza egiteko. Ez ahultzeko zerbait jan beharko duzu (sagarrik, barratxo energetikoak).

- 4 Bihar plastikako ordudan lan bat prestatu behar duzu eta zinta eta barra itsasgarrnia erosi behar dituzu.

- 5 Erosi beharreko gauza guztien zerrenda egitea pentsatu duzu, baina non? Paper bila joan zara eta ez dago paperik.

